



IRAGARKIA

**LAN-KONTRATUDUN LANGILEAK PROBALDIAN IZENDATZEA, KIROLDEGIKO LANGILEA, 20/2021
LEGEAREN 6. ETA 8. XEDAPEN GEHIGARRIETATIK ERATORRITAKO IRAUPEN LUZEKO ALDI
BATERAKO ENPLEGUA EGONKORTZEKO SALBUESPENEZKO DEIALDIAREN PROZESUAN,
HAUTAKETA-PROZESUAK AMAITU ONDOREN.**

Alegria-Dulantzin, 2025eko uztailaren 28an, 13:00etan, Joseba Koldo Garitagoitia Odria alkate jaunaren bulego ofizialean, Vanessa Domínguez Casal idazkaria bertan dela.

IKUSITA 2022ko maiatzaren 4ko osoko bilkuraren erabakia, erreferentziako oinarriak eta deialdia onartzen dituen.

IKUSITA 2022ko abenduaren 16ko Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean (ALHAO) argitaratutako iragarkia (huts-zuzenketa 2023ko martxoaren 17ko ALHAOn, 32. zenbakian) eta deialdiaren laburpen bat (2023ko apirilaren 17ko BOE, 91. zk.). Deialdi horretan, egiturazko izaera duten lanpostu hutsak merezimendu-lehiaketaren sistemaren bidez betetzeko hautaketa- eta deialdi-oinarriak argitaratu ziren, 20/2021 Legearen 6. eta 8. xedapen gehigarrietatik eratorritako iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko deialdiaren esparruan.

IKUSITA Abenduaren 28ko 20/2021 Legetik eratorritako aldi baterako enplegua egonkortzeko prozesuen kudeaketa materiala Arabako Foru Aldundiari agindu izana.

IKUSITA 2023ko apirilaren 17ko BOEn (91. zk.) argitaratutako iragarkia, eskabideak aurkezteko epea irekitzekoa.

IKUSITA 2023ko azaroaren 27ko Dekretua, izangaien behin betiko zerrenda eta behin-behineko puntuazioa onartzen dituen.

IKUSITA Epaimahaiaren erabakia, behin betiko puntuazioekin, eta 2024ko urriaren 3ko izendapen-proposamena.

IKUSITA 2025eko ekainaren 3ko Dekretua, kiroldegiko opeario lanpostua esleitzea proposatzen duena.

IKUSITA proposatutako pertsonak dokumentazioa bidali duela, deialdiaren oinarrien 13. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Agintaritza horrek ebazpen hau eman zuen:

LEHENENGOA. – Hurrengo pertsona lan-kontratuko probaldian izendatu, eta Alegria-Dulantziko Udaleko lanpostu honetara atxikitzea:

LANPOSTUA	TALDEA ETA AZPITALDEA	ESKALA, AZPITALDEA ETA MOTA	PROBALDIAN IZENDATUTAKO PERTSONA
Udal-eraikinetako arduraduna (kiroldegiko langilea) – 03.003	TP	Eskala Administrazio Orokorra, mendekoen azpieskala	BORJA TRIVIÑO SANZ

Izendapen honek administrazio-ondorioak izango ditu dekretu honen dataren hurrengo egun baliodunetik aurrera, 2025eko uztailaren 29tik aurrera.

BIGARRENA. – Probaldian izendatutako lan-kontratudun langileek hilabete izango dute lanean hasteko, ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

HIRUGARRENA. – Lanpostuaren atxikipena behin-behinekoa izango da, praktikaldia amaitu arte. Dagokion taldeari dagozkion soldataren eta aparteko ordainsarien baliokideak jasoko ditu, salbu eta praktiketako funtzionarioen ordainsariak ezartzen dituen otsailaren 10eko 456/1986 Errege Dekretuan aurreikusitako egoeraren bat gertatzen bada.





Probaldia amaitu eta gainditu ondoren, lan-kontratudun langile finko izendatuko dute, eta izendapena ALHAOn eta legez ezarritako beste edozeinetan argitaratuko da.

LAUGARRENA. – Juan José Alburquerque Gajate tutore izendatzea.

BOSGARRENA. – Interesatuari jakinaraztea.

SEIGARRENA. – Ebazpen hau ALHAOn, erakunde honen iragarki-taulan eta www.alegria-dulantzi.eus webgunean argitaratzeko agintzea.

ZAZPIGARRENA. – Dekretu honen berri ematea Osoko Bilkurari egiten den lehenengo bilkuran, eta Lehendakaritzaren Dekretu eta Ebazpenen Liburuan transkribatzea.

Alegria-Dulantzi, dokumentu hau elektronikoki sinatzen den egunean.

ALKATEA.

